

## HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAREN AURRETIKO FASEA LANKIDETZA MAHAIA

DATA: 2016/05/17; ORDUA: 10:00-11:30

LEKUA: UDALETXEA

### UDALA:

Joseba Ormazabal (Partaidetza eta Informazioaren gizartea Zinegotzia)

Angel Uranga (Hirigintza eta Obrak)

Gorka Elustondo (Udaltzaingoa)

Lourdes Senovilla (Gizarte Zerbitzuak)

Olatz Oiartzabal (Feriak eta Merkataritza)

Kristina Larrañaga (Enplegua eta Garapen ekonomikoa)

Jexux Peñagarikano (Euskara eta Zerbitzuak)

Arantxa Estanga (Kirolak)

Iñigo Muñoz (Ingurumena)

Agurtza Zuberoa (Berdintasuna)

Nerea Cereceda (Gazteria)

Garikoitza Lekuona (Parte-hartzea)

Jokin Ansorena (Kultura)

LAGUNTZA TEKNIKOA: Ana López eta Eider Larrañaga (Enea)

## GAI ZERRENDA

1. PROIEKTUAREN HELBURU NAGUSIA ETA GAKOAK
2. BARNE ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA PROZESUAN
3. LANKIDETZA MAHAIAREN ZEREGINAK
4. DISEINU FASEAN TALDE SUSTATZAILEAREN EREMUAN EGINDAKO LANAREN EMAITZAK:
  - IRIZPIDEAK ETA KONPROMISOAK
  - IKUSPEGIA ETA MAHAI SEKTORIALAK EGITURATZEKO LANKETA
5. HURRENGO PAUSUAK

## LABURPENA

### 1. PROIEKTUAREN HELBURU NAGUSIA ETA GAKOAK

Iñigo Muñoz, Udaleko teknikariak, ongietorria ematen die bertaratutakoei eta, bileraren helburu nagusia azaldu du.

Jarraian, Ana Lopezek hartu du hitza. Proiektuaren helburu nagusia Gobernantza eredu berri

bat sortzea dela aipatu du, zeinak herritarrak politika publikoetara hurbiltzea izango duen gako nagusia. Testuinguru honetan eta prozesu honen baitan, 2030. urtera begirako hausnarketa estrategikoa egingo da, zeinak Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plan berria formulatzen lagunduko duen.

Honekin lotuta, prozesua gidatuko duten lau gako nagusiak aurkezten dira:

- **Tokiko Agenda 21**, ildo honetan udalak duen esperientzia eta errekonozimendua azpimarratuz, eta berau berritzearekin batera **gobernantza** eredu berria sortzeko aukera.
- **Gardentasuna** politika publikoetan, sortuko den Plan berriaren jarraipen ereduari lotuta.
- **Klima aldaketa**, aurrekoan bezala, orain arte emandako pausuak balorean jarriz eta gaiari heltzen jarraitzeak duen garrantzia azpimarratuz.
- **Berdintasun** ikuspegia, modu zeharkakoan landuko den gaia dela azalduz, bai prozesuari begira bai edukien lanketari dagokionez.

## 2. BARNE ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA PROZESUAN

Lan hau egiteko hiru parte-hartze eremu martxan jarri dira:

- **Talde Sustatzailea:** herritarrez osatutako taldea. Berau osatzeko udal teknikariek egindako pertsonen identifikazioa hartu zen oinarri bezala. Dagoeneko talde sustatzailearen 3 bilera egin direla aipatu da, bertan prozesu hau gidatuko duten parte-hartze irizpideak eta mahai sektorialen egitura zehaztu direla eta 2030. urterako ikuspegiaren aurre lanketaren lehen urratsak eman direla azaldu da.
- **Lankidetzeta Mahaia:** udal teknikariek osatutako taldea, gaurko bilera hain zuzen ere.
- **Jarraipen Batzordea:** udal gobernu eta oposizio taldeko ordezkari politikoek osatutako taldea, zeinaren lehen bilera dagoeneko ospatu den.

Ondoren, proiektuaren faseak eta fase hauetan talde bakoitzak izango dituen zeregin nagusiak azaldu dira. Prozesuan zehar gakoak diren momentuetan, hiru taldeen bilerak egitea aurreikusten da, fase horiekin erlazionatutako gai edo elementu klabeak guztion artea adoste aldera.

## 3. LANKIDETZA MAHAIAREN ZEREGINAK

Proiektuan zehar Lankidetzeta mahaiak izango dituen zereginen aurkezpena egin da, fasez-fase:

### Diagnostiko fasea:

- Erreferentziatzko plan, ikerketa edo udal programen identifikazioa eta ematea.
- Jasotako informaziotik abiatuz, lana burutuko duen diziplina anitzeko lantaldeko kideak udal teknikariek bilduko dira alde bitako elkarriketetan.
- Informazioa guztiarekin, Diagnostikoa osatu eta ondorioak identifikatu ondoren, berau udal teknikariek kontrastatuko da baita ere.

### Formulazio estrategikorako fasea:

- 2030. urterako ikuspegia, erronkak eta xedeen lanketan parte-hartzea.

#### **Ekintza planaren formulazio fasea:**

- Ekintzen lehen proposamenaren berrikuspena eta osaketa.
- Berau adostuta, norberari dagozkion ekintzen deskribapena egin edo osatzea.

#### **Parte-hartzearen eremuan:**

- Talde sustatzailearen eta mahai sektorialen osaketan parte hartu, eragile gakoak eta talde/erakundeak identifikatuz.
- Mahai sektorialak abiatzean, ospatuko diren saioetan parte hartzea (norberari dagokion gaiaren arabera).

## **4. DISEINU FASEAN TALDE SUSTATZAILEAREN EREMUAN EGINDAKO LANAREN EMAITZAK**

Eider Larrañagak orain arte burutu diren Talde sustatzailearen 3 bileretan lortu diren emaitzak aurkeztu ditu:

### **IRIZPIDEAK ETA KONPROMISOAK**

Prozesuari lotutako herritarren parte-hartzea gidatuko dituzten irizpide eta konpromisoak landu dira. Denetara **17 konpromiso** adostu dira, lau ataletan sailkatuak:

- A. Koordinazioa eta antolakuntza
- B. Parte-hartzaileak
- C. Metodologia
- D. Emaitzak

Iñigo Muñoz-ek irizpideak zehazterakoan Talde sustatzailean eztabaida gehien izan duen gaia parte-hartzearen izaeran ingurukoa izan dela aipatu du. Udalerrian gauzatuko diren beste proiektuetarako ere parte-hartze marko orokorra definitzeko beharra aipatu dela adierazi du. Zentzu honetan, Joseba Ormazabalek honako prozesu hau abiapuntu izango dela aipatu du eta etorkizunari begira ildo honetan aurrerapausoak eman beharko direla azaldu du.

Beste puntuetako bat adostasunari erreferentzia egin dion irizpidea dela aipatu du. Ekintza Planean hiru eremuetan (herritarrak, udal teknikariak eta politikariak) adostasuna lortzen duten proposamenak jasoko direla eta, interes gehien duten gaiak planetik kanpo geratzeko arriskua izateren kezka aipatu dute talde sustatzaileko partaideek.

### **MAHAI SEKTORIALEN EGITURAKETA**

Talde sustatzaileen bileretan beraien ikuspegitik eta 2030 urteari begira Tolosan gakoak izan daitezkeen gaiak/arloak identifikatu dira eta hau oinarri hartuz, mahai sektorialen proposamena egin da. Hasieran 3 mahai egitea proposatu bazen ere, talde sustatzailean 4 mahai sektorial egitea adostu zela aipatu da:

- **Pertsonak:** Bertan landuko diren gaiak ondorengoak dira: *Osasuna, ongizatea, 3.adina, gazteak, etorkinak, emakumeak, ezgaitasuna, bizikidetza/kohesioa, bizi-kalitatea.*
- **Kultura eta hezkuntza:** Landuko diren gaiak: *euskara, kulturartekotasuna, hezkuntza, kirola, kultura (ekipamenduak, eskaintza,...), elkarteak*
- **Ekonomia:** Landuko diren gaiak: *enplegua, baldintza sozioekonomiko duinak, ekintzailletza, merkataritza*
- **Ingurumena eta Lurralde antolamendua:** Landuko diren gaiak: *hirigintza eta etxebizitza, natur baliabideak (ura, energia, hondakinak), ingurumen naturala, mugikortasuna*

Genero ikuspegia eta parte-hartzea modu trasbertsalean landuko diren gaiak izanik, ez dira mahai sektorial konkretu batetan kokatu, guztietan landu beharko den gaiak baitira.

## **IKUSPEGIAREN AURRELANKETA**

Talde sustatzailean 2030 urteari begira, Tolosarako nahi luketen ikuspegiaren aurre lanketa egin da baita ere, zeina diagnostikoa egin ondoren, teknikarien eta politikarien ikuspegiarekin osatuko den. Honetaz gain, hausnarketa estrategiko fasean eta diagnostikoaren emaitzak azaldu eta teknikarien eta politikarien ikuspegia txertatuta, berriz ere talde sustatzailean landu eta osatu da.

Diseinu fasean burutu den lanketa honetan mahai sektorial bakoitzean landuko diren gaiak oinarri hartuta, bakoitza gidatuko duen aurre ikuspegia osatu da:

### **PERTSONAK**

Tolosar guztion, ongizatea eta osasuna berrmatuko duen herria, arlo guztietan kohesionatua egongo dena eta bizimodu osasungarria eta bizi-kalitatea bultzatuko dituen, baita bizimodu aktiboa eta parte-hartzailea ere, balore guzti hauek balioan jarriko dituen.

### **KULTURA ETA HEZKUNTZA**

Tolosa aniztasunean eraikitako herri bizia, jakintsua eta ekintzailea da. Ingurua eta bere burua ongi ezagutzen duen kultur anitzeko herria, euskara ardatz izanik guztiok gustura eta eroso sentitzea ahalbidetuko duena.

### **EKONOMIA**

Tolosak saretutako ekonomia aktiboa izango du, berezkoak dituen baliabideak indartuz eta errespetatuz, egitasmo berriei bultzada emango diena; sektore desberdinen arteko elkarlanaren bitartez, garapen ekonomiko iraunkorra berrmatu eta eskualdeko mugetarik harataqo zabalduaz.

### **INGURUMENA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA**

Tolosa herri iraunkor eredugarria izango da, hiri eredu alternatibo baterako trantsizioan, eta orekatua lurralde antolaketaren ikuspegitik, non espazio publikoa elkargune eta bizileku izango den, kultura, aisia nahiz kirol egitasmoen plaza.

## 5. HURRENGO PAUSUAK

Diagnostikoa osatze aldera eta alde bitako elkarrizketak egin aurretik udaleko sail bakoitzean datozen hilabete/urtetan izango dituzten lehentasun edo helburu nagusiak ezagutzeko, bakoitzari laburki ondorengo bi galderari erantzuteko eskatu zaie:

- ZEINTZUK DIRA ZURE ARLOAN INDARREAN DAUDEN ETA KONTUAN HARTU BEHARKO LIRATEKEEN PLAN EDO IKERKETA NAGUSIAK?
- DATOZEN 2-4 URTEETARA BEGIRA, ZEINTZUK DIRA ZURE ARLOAREN LEHENTASUNEZKO GAI NAGUSIAK?

Jarraian sail bakoitzak egindako azalpenaren laburpena egiten da:

### **Gazteria:**

Gazteria sailak 10-30 urte bitarteko gazteak hartzen ditu kontutan. Sailak 4 lan ildo nagusi ditu:

- Aisialdi hezitzailea
- Sustapena
- Informazioa/ komunikazioa
- Emantzipazioa

Datozen 2-4 urteei begira, haurrei eta nerabeei heltzea da erronka nagusia, arlo hauek baitira gutxien garatuak dauden arloak.

### **Ekonomia sustapena:**

Eskualde mailan lan egiten dute arlo nagusi honetan.

Lanbide eta Foru Aldundiko programak bideratzen dira arlo honetatik. Lanbideren programa maiatzaren 30an bukatzen da eta ez dakite aurrerantzean nola jarraituko duen arlo honek.

### **Hirigintza:**

Hirigintza 2-4 urte epe motza bezala kontsideratzen da, arlo honetako aldaketak oso poliki ematen baitira. Plan Orokorraren berrikuspena aurreikusten da datozen urteei begira eta konkretuki San Esteban auzoko moldaketa partziala.

Momentu honetan udalerriek barrura begiratu behar dute (eraikinak birgaitu edo 2018. urterako eraikuntzen inspektzio teknikoak egin). Tolosan urbanizazio ugari zaharkituak geratu dira eta honen inguruko plangintza egitea beharrezkoa da.

### **Kultura:**

Programazioa mantendu eta ahal den neurrian hobetzea da helburu nagusia. Ondorengo urtetako lan ildo nagusiak ondorengoak dira:

- Formazioa (tailerrak,...)
- Ekipamenduak zaharkituak geratzen ari dira eta bereziki, liburutegi on bat.
- Ondarearen katalogazioa

- Sailaren estruktura hobetu

### **Gizarte zerbitzua:**

Momentu honetan ez dago zerbitzu bururik eta trantsizio fasean daude. 4 ildo nagusietan egiten dute lan.

Orain pobrezia-aren inguruko ikerketa egiten ari dira Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean.

### **Kirolak:**

2 lan ildo nagusi daude:

- Instalazioak eta ekipamenduak: behar den kasuetan sarea osatu eta hobetzea da helburua.
- Jarduerak: Lan eremuak kirol elkarteak, eskola kirola eta kirolak (orokorrean) dira. Bakoitzean lantzen diren helburuak eta erritmoak desberdinak dira.

### **Merkataritza:**

Gune biziak eta ondorengotza ziurtatzean lan egiten dute. Honetaz gain, larunbatetako merkatua eta feriak ere arlo honetako lan ildoak dira.

Turismoari dagokionez, jendea Tolosara erakartzea da helburu nagusia.

### **Euskara eta hezkuntza:**

Hizkuntza arloan erabilera da erronka nagusia.

Udalean barne, zein kanpo erabilera sustatzeko Euskara Biziberritze Plana indarrean dago 2017 urtera arte.

### **Udaltzaingoa:**

Beraiek trafikoa eta segurtasuna lantzen dute. Honekin batera 30 guneak, bidegorriaren erabilera eta txirringulak, baina gaur egun ez dago indarrean dagoen Mugikortasun planik. Beraiek egunerokotasunaren ezagutza dute, baina ez dira teknikariak.

### **Berdintasuna:**

Momentu honetan III Berdintasuna Plana 2015-2020 dago indarrean. Plan honek ondorengo ardatz nagusiak jasotzen ditu:

- Udal barneko lana
- Emakumeen jabetza eta parte-hartze soziopolitikoaren bermatzea. Bertan Jabetza eskola eta Hezkidetzak Mahaiak daude.
- Biolentzia: Honen testuinguruan Protokolo instituzio arteko Mahaia sortu da.
- Bizitza iraunkortasuna eta bizi-kalitatea

Honetaz gain, 2008. Urtean Tolosak Berdintasun ordenantza onartu zuen.

### **Ingurumena:**

Energia eta klima aldaketa izango dira datozen urteetarako lan ildo nagusiak.

Bukatzeko, eragile bakoitzari eta mahai sektorialetan landuko diren gaiak kontutan izanda, mahaian osaketa ahalik eta pluralena eta ordezkaritza aldetik zabalena izateko helburuarekin, arlo bakoitzean lan egiten duten erakunde edo talde nagusiak identifikatzea eskatu zaie. Talde sustatzailea eratzeko pertsonak identifikatzerako laguntza eman zuten bezala, oraingoan erakunde eta talde desberdinei mahaietan parte hartzeko gonbitea luzatuko zaienez, hauek identifikatzen laguntzeko eskatu zaie.

Bileran lehen identifikazioa egin bada ere, aktarekin batera zerrenda bidali eta beratu osatzeko aukera egongo dela adostu da. Kulturatik aipatzen denez, oinarri bezala Talde sustatzaileko kideak identifikatzeko osatu zuten zerrenda bera izango litzatekeela aipatu dute.

Bertaratutakoei eskerrak emanez, bilerari amaiera ematen zaio.